

# Irurako #hitzolari lehiaketa

## 2019ko EUSKARAREN EGUNEKO EKINTZA

### ZER DA?

#hitzolariak. Hitz+ola+riak. Hitzarekin jolas egiteko fabrika jardunean dabiltzan kideak dira #hitzolariak.

### NORK HARTU DEZAKE PARTE?

12 urtetik gorako iruratarrek hartu dezakete parte.

### EKINTZA: #hitzolariak

Ekintza bi plazetan gauzatuko da:

- 1) Herrian bertan
- 2) Plaza digitalean

#### 1. HERRIAN BERTAKOA

**Azaroaren 26tik abenduaren 1era** lehiaketa izango da Iruran. Zein izango da lehiaketan parte hartuko duzuenok egingo duzuen ekarpena? Bakoitzarentzat esanguratsuak diren edo izan daitezkeen euskarazko hitzak ekartzea edo sortzea:

- Hitz berriak
- Esanahi berria hartu duten aspaldiko hitzak
- Dagoeneko gutxi edo erabiltzen ez diren hitzak
- Herrian edo inguruan erabiltzen diren hitzak
- Gremio edo kolektibo jakinetan erabiltzen diren hitzak
- ...

**Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean**, lehiaketara aurkeztutako hiru hitz sarituko ditugu. Herriko plaza (edo frontoia) hariez apainduko dugu (zintzilikario moduko bat). Bertan pintzak egongo dira zintzilik, Ikastolako umeek idatzitako hitzekin eta lehiaketan parte hartu duzuenon hitzekin; herritarren ekarpen espontaneoak ere zintzilikatuko dira.

#### 2. PLAZA DIGITALEKOA

**Azaroaren 26tik abenduaren 3ra**, sare sozialetan #hitzolariak-en bonbardeoa hasiko da. Jendeak bere hitzen ekarpena egingo du sare sozialetan. Bertan, hiru datu dira beharrezkoak: hitza, esanahia eta #hitzolariak erabiltzea. Adibidez:

- UDENEARRA: inoiz agortzen ez den eta beti tantoka dagoen iturri edo ur emaria, Amezketan. #hitzolariak
- IKARASLEA: ikara ematen duen irakaslea. #hitzolariak

## NON:

**LEHIAKETA:** Irurako udaletxean eta kultura-etxean kutxa bana egongo da, lehiaketara aurkeztu nahi duzuen hitza sartzeko (bertan izango dira bete beharreko orriak).

Helbide elektronikoa honetara ere bidal daiteke: [irura.euskaraldia@gmail.com](mailto:irura.euskaraldia@gmail.com) (aipatu beharreko datuak: hitza, esanahia, zure izen-abizenak, adina, telefonoa eta e-maila).

**EUSKARAREN EGUNA eta SARI BANAKETA:** abenduaren 3ko ekitaldia plazan egingo da (eguraldi txarra egingo balu, frontoian egingo genuke).

## EKIMENAREN HELBURUA:

Herritarrak eta euskara erdigunean jartzea, bakoitzak dakarkienari garrantzia emanaz. Ondo pasatzea, jolastea eta herritarrak hizkuntza biziaren inguruanelkartzea.

Batetik, euskararen izaera modernoa erakutsi nahi da, moldatzeko duen gaitasuna, eta "euskaraz hori ezin da esan" edo "euskarak sektore batzuetarako ez du balio" moduko pentsamenduak apurtzea.

Bestetik, euskararen altzorra ere berreskuratu nahi da: dagoeneko oso gutxierabiltzen diren hitzak, sektore jakin batentzat ezagunak direnak, belaunaldi baten hitzak...

Beraz, bakoitzak hitz bat baino gehiagoren ekarpena egitea da interesgarria.

## ONDOREN EGINGO DENA:

Hitz guztiak batuko ditugu eta gero denak Galtzaundiri pasako dizkiogu. Galtzaundik hitz horiek antolatu eta hiztegi bat osatuko du euskarri digitalean.